Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. enpresari, Urbil Merkatal Zentroko B-53A lokalean gimnasioaren jarduera sailkaturako lizentzia ematea ondorengo



Usurbilgo Udala

2023/06/22

baldintzapean:

- 3/1998 Legearen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 59 bis artikuluan ezartzen den bezala, jardueraren baldintzak betetzen ez badira, lizentzia indarrik gabe geldituko dela.
- Jarduerak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendariak ezarritako neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

Osasun Sailak ezarritakoak, ondokoak dira hitzez hitz:

- Funtzionamenduan ura erabiltzen duten eta aerosola sortzen duten barneko zein kanpoko instalazio guztiak (UBS, hidromasajea, lurruntzekondentsadorea, etab.) legionelusia hedatzeko foku bihur daitezke; beraz, legionelusia prebenitzeko eta kontrolatzeko higiene-eta osasun-baldintzak ezartzen dituen uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretua eta ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretua bete beharko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendariak ezarritakoak ondokoak dira hitzez hitz:

1. Erakunde Tekniko eskudunek emandako aplikazio orokorreko arau espezifikoei egokitu beharko zaie jarduera.
2. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta eta kontuan izanda Eskura dauden Teknika Onenak; hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak.

Nolanahi ere, jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua eta bat datorren gainerako araudia beteko du.

3. Jardueraren zarata-fokuek Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan ezarritako muga-balioak beteko dituzte.

Horien artean, besteak beste, mugakide diren lokaletara igorritako zarataren muga-balioei erreparatuko zaie, Dekretuaren I. eranskineko 2. ataleko G eta H tauletan daudenak; eta baita zarata-inmisio muga-balioei ere, Dekretuaren I. eranskinaren 2. zatiaren E eta F tauletan daudenak.

4. Mota guztietako makinak bibrazioen aurkako elementuekin



Usurbilgo Udala

2023/06/22

ainguratuko dira, bibrazioak ez transmititzeko eraikinaren egiturara eta inguruetakoko lokaletara.

5. Lokala sistema mekaniko eta kanalizatuaren bidez aireztatuko da, biztanleriari usainik, zaratarik eta bibrazioarik helarazi gabe. Instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoa bete beharko du.
6. Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari dagokionean, jarduerak Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea beteko du, udal-araudiaren kalterik gabe. Jardueraren titularrak bere hondakinen tratamendu egokia ziurtatu beharko du. Horretarako, Giza Osasuna eta Ingurumena Babesteko Printzipioa errespetatu beharko du, besteak beste.
7. Ahal den neurrian energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak hartuko dira, eta baita energia berriztagarriak sustatu eta ezartzekoak ere.

Edonola, aurreko fatxadako arotzerian dagoen "videowall" motako argizatutako pantaila, gimnasioko sarreraren ondokoan dagoena, itzalita egongo merkataritza- gunea itxita dagoen ordutegian.

8. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
9. Jardueraren ingurumen-jardunaren etengabeko hobekuntza sustatuko da, apurka-apurka eta mailaz maila zenbait tresna ezarriz, hala nola Europako Erkidegoko Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS), Europar Batasuneko etiketa ekologikoaren sistema, ingurumen-aztarnaren kalkulua edo produktuaren eta prozesuaren ekoberrikuntza. Horiek guztiak borondatez aplikatzekoak dira, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean jasota daude, ingurumen-hobekuntza bultzatzeko tresna gisa.
10. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
11. Proiektuan jasotzen diren zehaztapenak eta neurri babesleak zein zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
12. Txosten honetan ezarritako neurri babesleak eta zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira.

Jardueraren titularrak udalari eman beharko dio ingurumenean eragina izan dezaketen ondorioak ekarriko dituen zeinahi aldaketaren berri,



Usurbilgo Udala

2023/06/22

baldin eta horrek eragina baldin badu jardueraren ezaugarrietan, funtzionamenduan edo hedapenean. Aldaketa hori funtsezkoa bada jarduerak baimen berria beharko du.

13. Txosten honek eta honen ondoren udalak sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela, jarduera martxan dagoen bitartean, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko du indarrean sartzeko doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

BIGARRENA: Aldez aurretik jarduera baimena emateagatik indarrean diren ordenantza fiskalek ezartzen duten Udal zerga ordainduko da.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. ENPRESAK URBIL MERKATAL ZENTROKO B-53A LOKALEAN EZARRITAKO GIMNASIOARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0022).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0352
2022-OHAN-0022

ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. (IFK: B42976449) enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-53A lokalean ezarrিতako gimnasioaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 13an, zera erabaki zuen: ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. enpresari, Urbil Merkatal Zentroko B-53A lokalean gimnasio bat ezartzeko obretarako udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	405.379,50 €
Obra amaierako ziurtagiria:	1.047.960,06 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.207,39 €
	Fidantza (%120): 1.448,87 €

JARDUERAREN IZAPIDETZEA



Usurbilgo Udala

2023/06/22

ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-53A lokalean ezarri nahi duen gimnasio jarduera aurkeztu zuen, dagokion izapidea izan zen (Esp. Zenbakia: HZ.07/2022-0353).

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 170. zenbakia, 2022ko irailaren 7an). Jendaurreko epealdian ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2022ko irailaren 7an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 3684 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera. Bere txostenean honako baldintza ezarri du:

- Funtzionamenduan ura erabiltzen duten eta aerosola sortzen duten barneko zein kanpoko instalazio guztiak (UBS, hidromasajea, lurruntzekondentsadorea, etab.) legionelosia hedatzeko foku bihur daitezke; beraz, legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko higiene-eta osasun-baldintzak ezartzen dituen uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretua eta ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretua bete beharko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendariak jardueraren neurri babesle eta zuzentzaileak helarazi zizkigun 2022ko azaroaren 15ean. Honakoak hain zuzen:

1. Erakunde Tekniko eskudunek emandako aplikazio orokorreko arau espezifikoei egokitu beharko zaie jarduera.
2. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta eta kontuan izanda Eskura dauden Teknika Onenak; hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igoeraren ezaugarriak.

Nolanahi ere, jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua eta bat datorren gainerako araudia beteko du.

3. Jardueraren zarata-fokuek Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan ezarritako muga-balioak beteko dituzte.

Horien artean, besteak beste, mugakide diren lokaletara igorritako zarataren muga-balioei erreparatuko zaie, Dekretuaren I. eranskineko 2. ataleko G eta H tauletan daudenak; eta baita zarata-inmisio muga-balioei ere, Dekretuaren I. eranskinaren 2. zatia E eta F tauletan daudenak.



Usurbilgo Udala

2023/06/22

4. Mota guztietako makinak bibrazioen aurkako elementuekin ainguratuko dira, bibrazioak ez transmititzeko eraikinaren egiturara eta inguruetako lokaletara.
5. Lokala sistema mekaniko eta kanalizatuaren bidez aireztatuko da, biztanleriari usainik, zaratarik eta bibrazioirik helarazi gabe. Instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoa bete beharko du.
6. Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari dagokionean, jarduerak Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea beteko du, udal-araudiaren kalterik gabe. Jardueraren titularrak bere hondakinen tratamendu egokia ziurtatu beharko du. Horretarako, Giza Osasuna eta Ingurumena Babesteko Printzipioa errespetatu beharko du, besteak beste.
7. Ahal den neurrian energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak hartuko dira, eta baita energia berriztagarriak sustatu eta ezartzekoak ere.

Edonola, aurreko fatxadako arotzerian dagoen "videowall" motako argizatutako pantaila, gimnasioko sarreraren ondokoan dagoena, itzalita egongo merkataritza- gunea itxita dagoen ordutegian.

8. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
9. Jardueraren ingurumen-jardunaren etengabeko hobekuntza sustatuko da, apurka-apurka eta mailaz maila zenbait tresna ezarriz, hala nola Europako Erkidegoko Ingurumen Kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS), Europar Batasuneko etiketa ekologikoaren sistema, ingurumen-aztarnaren kalkulua edo produktuaren eta prozesuaren ekoberrikuntza. Horiek guztiak borondatez aplikatzekoak dira, eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean jasota daude, ingurumen-hobekuntza bultzatzeko tresna gisa.
10. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
11. Proiektuan jasotzen diren zehaztapenak eta neurri babesleak zein zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
12. Txosten honetan ezarritako neurri babesleak eta zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira.

Jardueraren titularrak udalari eman beharko dio ingurumenean eragina



Usurbilgo Udala

2023/06/22

izan dezaketen ondorioak ekarriko dituen zeinahi aldaketaren berri, baldin eta horrek eragina baldin badu jardueraren ezaugarrietan, funtzionamenduan edo hedapenean. Aldaketa hori funtsezkoa bada jarduerak baimen berria beharko du.

13. Txosten honek eta honen ondoren udalak sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela, jarduera martxan dagoen bitartean, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko du indarrean sartzeko doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. (IFK: B42976449) enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-53A lokalean ezarritako gimnasioaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko ekainaren 15ean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: ACTIV FITNESS ESPAGNE, S.L. (IFK: B42976449) enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-53A lokalean ezarritako gimnasioari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2022ko abenduaren 27an ezarritako 1.448,87 €-tako fidantza (IE 48-2022) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES78 0049 0260 1723 1158 3605.

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

5.- BIZKARRA KALEA 9 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILU BERRIARI ETA OZTOPO



Usurbilgo Udala

2023/06/22

ARKITEKONIKOAK KENTZEKO EGINDAKO OBREI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0002).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0089
2022-OHAN-0002

BIZKARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20495297) ordezkartzen diharduen PATRICIA CASTRO ARISTIZABAL andereak, Bizkarra kalea 9 etxean jarritako igogailu berriaren eta oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako obren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 6an, zera erabaki zuen: BIZKARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEI (IFK: H20495297) Bizkarra kalea 9 etxean igogailua ordezkatzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 68.747,48 €
Obra amaierako ziurtagiria:	76.593,60 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.d artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 255 € Fidantza (%120): 306 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, BIZKARRA KALEA 9 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20495297) ordezkartzen diharduen PATRICIA CASTRO ARISTIZABAL andereak, Bizkarra kalea 9 etxean jarritako igogailu berriaren eta oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako obren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko maiatzaren 26an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

2023/06/22

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Bizkarra kalea 9 etxean jarritako igogailu berriari eta oztopo arkitektonikoak kentzeko egindako obreei lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2022ko maiatzaren 30ean ezarritako 306 €-tako fidantza (IE 22-2022) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian: ES27 2095 5069 0510 6776 0453 .

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

6.- GUREAK LANEAN, S.A. ENPRESAK HAASETAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO ZATI BAT EGOKITZEKO BURUTUTAKO OBREN AMAIERAKO DOKUMENTAZIOARI ALDEKO TXOSTENA EMATEA ETA ESPEDIENTEA BUKATUTZAT EMATEA (2022OHAN0007).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2022-0131
2022-OHAN-0007

GUREAK LANEAN, S.A. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko burututako obren amaierako ziurtagiria aurkeztu du.

AURREKARIAK – OBRA BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 12an, zera erabaki zuen: GUREAK LANEAN, S.A. enpresari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko obretarako udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	206.591,33 €
Obra amaierako ziurtagiria:	206.591,33 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 577,97 €
	Fidantza (%120): 693,56 €

OBRA AMAIERAKO ZIURTAGIRIA



Usurbilgo Udala

2023/06/22

Orain berriz, GUREAK LANEAN, S.A. enpresak, burututako obren amaierako ziurtagiria aurkeztu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko ekainaren 12an, aurketutako dokumentazioari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GUREAK LANEAN, S.A. enpresak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko burututako obren amaierako dokumentazioari aldeko txostena ematea eta espedientea bukatutzat ematea.

BIGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

7.- AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIARI HAASETAKO A-58 (IPARRALDE) EREMUAN, IPARRALDE ETXEKO BEHE SOLAIRUAN, ESKUINEKO LOKALA EGOITZAZKO ERABILERARA ALDATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA (2023OHAN0013).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0170
2023-OHAN-013

AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokala, hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerara aldatzeko udal baimena eskatzen du.

Eskaerarekin batera, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 12. artikulua xedatutako betetze aldera, ondoko dokumentazioa aurkeztu dute:

- Emilio Barrero Hidalgo arkitektoek 2023ko martxoan idatzizako Proiektua.
- Erabilera aldaketa ontzat emanez bizilagunen adierazpena.
- Lokalaren jabetza ziurtatzen duen salerosketa kontratua.

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, 2023ko ekainaren 13an etxebizitza moldatzeko proiektuari ALDEKO txostena eman dio.



Usurbilgo Udala

2023/06/22

Udal arkitektoek egindako txostenak kontutan izanik, *hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzak* xedatutakoaren arabera, erabilera aldaketa gauzatzeko izenpetu beharreko ondoko hitzarmena prestatu da:

HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERATIK EGOITZAZKO ERABILERARA ALDATZEKO HITZARMENA

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2013-0170 / 2023-OHAN-013

Usurbil, 2023ko ekainaren 23an

BILDURIK

Batetik, AGURTZANE SOLABERRIETA MESA jauna, adinez nagusia, Usurbilgo Udalaren alkate-lehendakaria. Udalaren ordezkartzan dihardu eta horretarako behar besteko ahalmena du, 2023ko ekainaren 17an hartutako erabakiaren arabera. Udal idazkariak, GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL andereak, egintza honetan parte hartu du.

Eta, bestetik, AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA anderea, 72554358F NAN zenbakiduna, ondoko helbidea duenak: Kalezar 46 / Usurbil. Bere izenean dihardu.

AURREKARIAK

LEHENA.- AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA anderea Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokalen jabea da. Erregistroko datuen arabera, lokalak 55,12 m²-ko azalera erabilgarria du; neurketa errealean arabera ordea, 63,80 m²-ko azalera erabilgarria du.

BIGARRENA.- 2023ko apirilaren 27an, AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereak, lehen aurrekarian aipatzen den lokalean hirugarren sektoreko erabileratik bizitegi erabilerarako aldaketa egiteko lizentzia eskatu zuen. Eskaerarekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu du:

- Emilio Barrero Hidalgo arkitektoek 2023ko martxoan idatzizako Proiektua.
- Erabilera aldaketa ontzat emanez bizilagunen adierazpena.
- Lokalaren jabetza ziurtatzen duen salerosketa kontratua.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko ekainaren 22an egindako bilkuran, AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereak egindako eskaeraren aldeko iritzia eman zuen. Era berean, **11.590,98** eurotan finkatu zuen lokal horren erabilera aldatzearen ondoriozko hirigintza kargen zenbatekoa.

LAUGARRENA.- 2023ko ekainaren 23an AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereak lehen aurrekarian adierazten den lokalean hirugarren sektoreko erabileratik



Usurbilgo Udala

2023/06/22

egoitzazko erabilerarako aldaketa egiteko Udalarekin bidezko Hitzarmena sinatzeko prest zegoela adierazten zuen idatzia aurkeztu zion Udalari, betiere arestian aipatu dugun 2023ko ekainaren 22an erabakian aditzera ematen denari jarraituta.

Bi aldeek elkarri onartzen diote Hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna eta aginpidea eta, horretarako, honako dokumentu hau sinatzen dute, ondoko xedapenak aintzat hartuta

X E D A P E N A K

LEHENA.- Usurbilgo Udalak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokala (azalera erabilgarria erregistroko datuean arabera: 55,12 m²; azalera erabilgarria du neurketa errealean arabera: 63,80 m²) hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerarako aldaketa egiteko baimena ematen du, betiere ondoren adierazten diren xedapenei jarraituta.

BIGARRENA.- Arestian aipatutako lokala etxebizitza bihurtzeko jardun horrek eragiten dituen hirigintza kargak ordaindu beharko dira. Karga hauen zenbatekoa **11.590,98 eurotakoa** da eta ondoko kontzeptuetan banatzen da:

- Espazio libreen sistema orokorrak osatzeko xedea duten lursailen balioa: 1.491,22 €
- Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzaren kuota: 5.071,04 €
- Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria: 5.028,72 €

Zenbateko hori egintza honetan bertan ordainduko da eta Hitzarmen hau ordainketa gutun gisa izango da baliagarria.

HIRUGARRENA.- Aldaketaren ondotik eratorritako etxebizitza babes publikoko etxebizitzatzat (Tasaturiko Udal Etxebizitza) hartuko da etengabe, eta *hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzaren ezarritako erregimenera atxikiko da, etorkizunean kalifikazio horretatik ateratzeko aukerarik izan gabe.*

LAUGARRENA.- Lokalean hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerarako aldaketa egiteko baimen hau, jabetza eskubidea gordeta eta hirugarren baten kalterik gabe egiten da, baita esku-hartzeak exiji ditzakeen jabetza horizontaleko tituluaren aldaketen kalterik gabe ere.

BOSGARRENA.- Erabileraren aldaketa gauzatzeko, interesatuak etxebizitza egokitzeko beharrezko lanak egin beharko ditu, horretarako aurretik Udalaren aginduzko lizentzia jasoz. Interesatuak, Hitzarmen hau izenpetzen den unetik kontaktzen hasita, BI HILABETEKO epea izango du dagokion Proiektu Teknikoa aurkezteko eta etxebizitza erabilera propiorako izango den ala ez, edo saltzeko edo alokatzeko izango den adierazteko.

SEIGARRENA.- Interesdunak, etxebizitza *Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritako baldintzak* betetzen dituenari besterendu edo alokatzeko konpromisoa hartzen du.



Usurbilgo Udala

2023/06/22

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen hau sinatu eta URTEBETEKO epean amaitu beharko dira lokala hirugarren sektoreko erabileratik egoitzazko erabilerara aldatzeko lanak, lehen erabilerako lizentzia lortu beharko da eta etxebizitzan jendeak bizi beharko du. Lehen erabilera baimena ematearekin batera etxebizitza Udal Etxebizitza Tasatu bezala kalifikatuko da. Epe horretan aurreko alderdi guztiak bete ez badira, erabilera aldatzeko eskubidea galdu egingo da eta zigor gisa hirigintza kargen kontzeptupean ordaindutako zenbatekoaren % 50 soilik itzuliko da.

ZORTZIGARRENA.- Etxebizitza berriari lehen erabilerako lizentzia eman ondoren eta hitzarmen hau sinatu eta urtebeteko epea amaitu aurretik etxebizitzan benetan jendea bizi dela egiaztatu ondoren, Udalak gertatu den erabilera aldaketaren eta lokalak lortu duen etxebizitza izaera berriaren behin betiko egiaztagiria emango du.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek goiburuan adierazten den lekuan eta egunean sinatzen dute dokumentu hau ale bitan.

ALKATEAK,
Izp.: Agurtzane Solaberrieta Mesa

JABETZAK,
Izp.: Aroa Etxeburua Ugartemendia

UDAL IDAZKARIAK,
Izp.: Garazi Etxeberria San Miguel

Gauzak horrela, udal arkitektoaren ALDEKO txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereari, Udalak behin betikoz onartu duen «Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantza» kontutan izanik, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokala (Erreferentzi katastrala: 7791051; lokalaren zenbaki finkoa: 5168226D) egoitzazko erabilerara aldatzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Erabileraren aldaketa ebazpenen honen azalpenetan jasotzen den Hitzarmena jabeak eta Alkateak izenpetzen dutenean, eta segidan zehaztutako hirigintza kargak ordaindutakoan gauzatuko da.
- Obra lizentzia lortu ahal izateko, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 6. artikuluan jasotzen den moduan, eskabidearekin batera, dagokion elkargoak ikus- onetsitako arkitekto batek idatzitako proiektu teknikoa aurkeztu beharko du.

Era berean, pertsona eragileak, etxebizitza, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituenari, besterendu edo alokatzeko bere nahia adieraziko du.



Usurbilgo Udala

2023/06/22

- Erabilera aldaketarako ondoko hirigintza kargak ezartzen dira:
 - Espazio libreen sistema orokorrak osatzeko xedea duten lursailen balioa: 1.491,22 €
 - Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzaren kuota: 5.071,04 €
 - Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria: 5.028,72 €
 - Guztira: **11.590,98 €**
- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.
- Erabileraz aldatutako lokalari, udal etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa eta lehen erabilera baimena eman aurretik, dagokion ikuskapena burutuko ostekoa aldeko txostenaz gain, beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da (eskritura berriak etxebizitza berriaren erregimena jasoz, eta abar.)

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari jakinaraztea, Hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea.

8.- BERRITZABITARTEA BASERRIARI (URDAIAGA 3) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2023OHAN0014).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2020-0249
2023-OHAN-0014

MARIA JOSEFA BEGIRISTAIN IRAZUSTA andereak, eraberritutako Berritzabitartea baserriaren (Urdaiaga 3) lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko azaroaren 24an, zera erabaki zuen: MARIA JOSEFA BEGIRISTAIN IRAZUSTA andereari, Berritzabitartea baserria (Urdaiaga 3) eraberritzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	249.381,24 €
Obra amaierako ziurtagiria:	316.722,16 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako	Aurrekontua: 2.405,99 €



Usurbilgo Udala

2023/06/22

Azterlana:	Fidantza (%120): 2.887,18 €
------------	-----------------------------

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, MARIA JOSEFA BEGIRISTAIN IRAZUSTA andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraberritutako baserriaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko ekainaren 6an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Berrizabitartea baserriari (Urdaiaga 3) lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko urtarrilaren 15ean ezarritako 2.887,18 €-tako fidantza (IE 8-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: 2095 5069 0091 1965 9772.

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

9.- HAASETAKO A-83 (OROITZAPENA) EREMUAN KOKATUTAKO OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) ESTALKIPEAN BI ETXEBIZITZA BERRI EGOKITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA (2023OHAN0015).

ESP.ZK.: HZ.04/2023-0241
2023-OHAN-0015

IGNACIO ICUTZA AIZPURUA eta IMANOL AYESTARAN ARANBURU jaunen ordezkartzan diharduen NIKOLAS BARANDIARAN CONTRERAS arkitektoak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuan, Oroitzapena etxean



Usurbilgo Udala

2023/06/22

(Aginaga 29) estalkipean bi etxebizitza berri egokitzeko obretarako udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	134.765,40 € (Kalitate-kontrola kontuan hartu gabe)
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 980,41 €
	Fidantza (%120): 1.176,49 €.
Eraikigarritasun haztatuaren %15eko lagapenari dagokion konpentsazio ekonomikoa	24.186,08 €

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Exekuzio Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, 2023ko ekainaren 13an honako ALDEKO txostena eman du hitzez hitz:

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate andreari

OBRA HANDIAK

OROITZAPENA ETXEKO (AGINAGA 29) ESTALKIPEKO SOLAIRUAN BI ETXEBIZITZA EGOKITZEKO OBRA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: Nikolas Barandiaran Contreras

ESKAERA: Oroitzapena etxeko estalkipeko solairuan bi etxebizitza egokitzeko obra baimena

ESKAERA DATA: 2023-06-07

KOKAPENA: Aginaga, 29. Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2023-OHAN-015

AURREKONTUA (PEM): **134.765,40 €** (Kalitate-kontrola kontuan hartu gabe)

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 980,41 € FIDANTZA (%120):

1.176,49

AURREKARIAK

- 2023ko otsailaren 10ean, Nikolas Barandiaran Contreras jaunak, Oroitzapena etxeko jabeakideen izenean, bertan igogailua jartzeko obra baimena eskatu zuen.
- 2023ko martxoaren 8an, Nikolas Barandiaran Contreras jaunak, dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen: bizilagunek sinatutako adostasuna eta zuzendutako planoak.
- 2023ko martxoaren 15ean udal arkitektoak aldeko txostena idatzi zuen.



Usurbilgo Udala

2023/06/22

- 2023ko ekainaren 7an, Nikolas Barandiaran Contreras jaunak Oroitzapena etxeko estalkipean bi etxebizitza egokitzeko baimena eskatu du.

Erlazionatutako espedienteak:

- 2023-OHAN-0005: Oroitzapena etxean (Aginaga 29) igogailua jartzeko obra baimena.
- HZ.01/2020-0073: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuko Antolamendu Xehatuaren Aldaketa.

TXOSTENA

Aurrekarietan adierazi bezala, Nikolas Barandiaran Contreras jaunak Oroitzapena etxeko estalkipean bi etxebizitza egokitzeko baimena eskatu du. Horretarako, dagokion proiektua aurkeztu du (berak sinatua eta dagokion elkargoak ikus-onetsita), honakoak jasotzen dituena, besteak beste: Memoria, Kalitate Kontroleko Plana, Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlana, Aurrekontua, Baldintza Plegua, Planoak eta Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarrizko Azterlana.

Aurkeztutako dokumentazioa eta eskaerari lotutako espedienteak aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

- **HIRIGINTZA ARAUDIAREN BETETZEA:** Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, Oroitzapena etxea hiri lurzoruan kokatzen da, hain zuzen, A-83 OROITZAPENA eremuan. Dagokion hirigintza fitzak honakoak ezartzen ditu, besteak beste:

1. Irizpide eta helburuak.

Egungo eraikuntza eremua mantentzea.

(...)

3. Erabilerak.

(...)

Bizitza kopurua goiko oinetan: 6 U.

5. Jarduketa.

Jarduera asistematikoa.

Zuzeneko exekuzioa egikarituko da.

Estalkipeko solairuan etxebizitza erabileraren baimentzea, Usurbilgo Hirigintza-plangintzako Hiri Antolaketako Arauen berrikuspenaren testu bategineko araudiaren aldaketa puntualaren (GHI-035/16-P05-A) «Estalkipeko Solairuak» 37. artikuluko 3. atalean ezarritako baldintzen menpe egongo da.

Erabilerari dagokionez, honakoa dio goian aipatutako aldaketa puntualak (GAOn 2016ko abuztuaren 6an argitaratua):

37. artikulua. Izaera orokorrean aplikagarriak diren eraikuntza baldintzak.

(...).

Eraikuntzen erabilera eta bizigarritasun baldintzak:

(...).

- Estalkipeko solairuak:

1. Ganbara eta teilapekoak trastetegi eta etxebizitzaren lagungarri izatekoak dira; bai eta makineria eta instalaketan elementu teknikoak sartzeko ere.

2. Eraikinen estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilerak baimendu ahal izango dira, beti ere 37. artikuluan ezarritako bizigarritasun baldintzak eta azalera gutxienekoak betetzen badira, baita 20/1997 Irisgarritasuna



Usurbilgo Udala

2023/06/22

Sustatzeko Legea eta 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irigarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena eta horiekin batera indarrean den aplikaziozko gainontzeko araudia (EKT, RBT, RITE, e.a.).

3. Erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan partze-hartzearen zuzkidura-karga eta lagapenei dagokionean, 2/2006 lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeak, 105/2008 Dekretuak 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 123/2012 Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa eta 11/2008 Legeak, hirigintza-jardueraz sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoak ezarritakoa bete beharko da.

Hortaz, kontuan izanik estalkipeko solairuan etxebizitza erabilera baimengarria dela eta igogailua jartzeko baimenari esker orain proposatutako etxebizitzak irisgarriak izango direla, ontzat eman daiteke erabilera aldaketa, beti ere, goian aipatu bezala, indarrean den aplikaziozko gainontzeko araudia betetzen bada (bizigarritasun baldintzak, irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretua, EKT, Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.)

Araudia betetzeaz gain, 11/2008 Legeari jarraiki, interesdunak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioaren %15 ordaindu beharko dio Udalari (txosten honi erantsita doa horri dagokion kalkulua).

- **BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA:** Eraikinen erabilera eta bizigarritasun baldintzei dagokionez, Arau Subsidiarioen arau orokorren 37 artikulua araberan, bertan aplikagarriak dira babes ofizialeko etxebizitzari dagozkien ordenantzak (edo haiek ordezkatzeko dituen 80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena).

Proiektuaren memorian jasotako hirigintza justifikazioa aztertuta, hain zuzen, bizigarritasun-baldintzak betetzen direla baieztatzen duena, ziurta daiteke egitasmoak oro har betetzen dituela aplikagarriak diren baldintzak (segurtasun-, osasungarritasun-, sarbide- eta irisgarritasun-, espazio- eta hornidura-baldintzak, alegia).

- **EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA:** Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.
- **IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA:** Etxebizitzaren barneko espazioei dagokienez, 68/2000 Dekretuaren arabera, irisgarritasun araudia ez da aplikagarria. Bermatuta egongo da, ordea, etxebizitza berriekiko irisgarritasuna igogailu berriari esker.
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 980,41 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri



Usurbilgo Udala

2023/06/22

beharko da obra baimena ematearekin batera (1.176,49 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Orohar, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete
 - Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete
 - Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete
- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obralanak egiteko lur publikoa okupatu beharko balitz, dagokion baimena eskatu beharko da.
- OBRA AMAIERA: Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:
 - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
 - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
 - Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.
 - Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eguneratzea.
 - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.
- BESTEAK: Edonola, indarrean dagoen eta aplikagarria den araudia bete beharko da.

ONDORIOA

Goian esandakoa kontuan izanik, Oroitzapena etxeko estalkipean bi etxebizitza egokitzeko obra baimenari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere aipatutako baldintzak betetzen diren artean.

Usurbilen, sinaduraren datan.

Udal Teknikaria

Izta.: Joxean Erasun

HIRIGINTZA-KARGEN BALORAZIOA

Araudi aplikagarria:

- 6/1999 Foru Dekretua, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentzia hartuta zehazteko prozedura onartzen duena (11. artikulua).
- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea (27. artikulua).



Usurbilgo Udala

2023/06/22

- 11/2008 Legea, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena.

Eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren gainean indarrean dagoen legezko kuota, urbanizazio-kargarik gabe:

Egungo balioa (trasteleku erabilera):

BE = (MB / 1,38) - EK
414,83 €/m²(t) = (MB / 1,38) - 240 €/m²(t)
MB = **903,66 €/m²(t)**

Azalpena:

BE: oinarritzko balio eragingarria

MB: merkatuko balioa

1,38: sustapen inmobiliarioaren gastuak eta mozkinak ponderatzen dituen konstantea

EK: eraikuntza kostua

Erabilera aldaketaren ondorengo balioa (etxebizitza erabilera):

BE = (MB / 1,38) - EK
414,83 €/m²(t) = (MB / 1,38) - 700 €/m²(t)
MB = **1.607,46 €/m²(t)**

Balioaren gehikuntza (gainbalioa):

{1.607,46 €/m²(t) - 903,66 €/m²(t)} x (114,55 x 2) m²(t) = 161.240,58 €

Lagapenaren balioa (%15) = 161.240,58 € x 0,15 = 24.186,08 €

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: IGNACIO ICUTZA AIZPURUA eta IMANOL AYESTARAN ARANBURU jaureei, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-83 (Oroitzapena) eremuan, Oroitzapena etxean (Aginaga 29) estalkipean bi etxebizitza berri egokitzeko obretarako obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Nikolas Barandiaran Contreras arkitektoak 2023ko maiatzean idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Obrak hasi aurretik, ezinbestean**, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 27. artikulua xedatutakoari jarraituz, udalari hirigintza-eraikigarritasun haztatuaren % 15ari dagokion **24.186,08 €**-ko konpentsazio ekonomikoa ordaindu beharko zaio.
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 980,41 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra



Usurbilgo Udala

2023/06/22

baimena ematearekin batean (1.176,49 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.176,49 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2023-OHAN-0015*” jarriaz kontzeptuan.

- EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA: Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.

IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Etxebizitzaren barneko espazioei dagokienez, 68/2000 Dekretuaren arabera, irisgarritasun araudia ez da aplikagarria. Bermatuta egongo da, ordea, etxebizitza berriarekiko irisgarritasuna iogailu berriari esker.

- LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA: Obralanak egiteko lur publikoa okupatu beharko balitz, dagokion baimena eskatu beharko da.
- Obra baimenaren epeak:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritze epe gehiengoa: 12 hilabete.
- Edonola, indarrean dagoen eta aplikagarria den araudia bete beharko da.
